

BALIOA

ZER BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUGU?:

Helpapp-ek gaur egun dagoen arazo nagusi bat konponduko du: **Interneten erabilera egokia**.

Egunotan, Interneten erabilera **hobetu** edota **ikasi** nahi duten pertsona asko daude. Gure aplikazioan, beharraren arabera, diseinu eta bideo errazagoak edo zailagoak izango dira, mailaren arabera. Hasieran proposatutako jarduerak guztik **doan** izango dira, baina gero, "premium" atal bat egongo da eta bertan arreta pertsonalizatua izango dute bezeroek. Era berean, mailaren eta beharraren arabera zehaztuko da prezioa.

1. OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO PERTSONAK:

Ikasteko prest dagoen jendea da. Azken batean, egunerokoan beharrezkoa den tresna bat da Internet, baina ez dakite **nola erabili**.

- **Bizum zein beste aplikazio batzuk erabiltzeko gidak-->** bideo desberdinen, txat baten bitartez edo gurekin harremanetan jartzeko aukera izanez
- **Erosketak egiteko urratsak-->** Bideo ezberdinen bitartez
- **Bilaketak era errazago batean egiteko laguntza-->** Bideo ezberdinen bitartez
- **Korreorearen bidez mezuak jaso eta bidaltzeko aukera-->** Bideo errazak eta sinpleak jarriko ditugu eta gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute
- **Sareen erabilera bideratzeko aholkuak-->** Power Point baten bidez (argazki desberdinak txartatuz). Gainera arazorik izatekotan bideoak egingo ditugu mugikor pantaila bat oinarri hartuta eta pausoz pauso erakusten

2. INTERNETEN ERABILERA HOBETU NAHI DUTEN PERTSONAK:

Arlo hau erabiliko duten pertsonak, **Interneten erabilerari buruzko oinarri bat daukatenak** dira baina Interneti buruzko **ezagutza handiagoa** nahi dute.

- **Mekanografia ikasteko gida-->** Jolas desberdinen bidez
- **Arazo teknikoak konpontzeko laguntzak-->** Bideoen bidez
- **Interneten erabilera aurreratua izateko urratsak-->** Power Point baten bidez eta bideoekin, laguntza pertsonalizatua behar izanez gero, profesional batekin harremanetan jartzeko aukera.
- **Interneti buruzko ezagutzak hobetzeko gidak-->** Dokumentu eta bideo informatiboen bidez

3. SORKUNTZARAKO INTERNET ERABILI NAHI DUTEN PERTSONAK:

Internet erabiliz **gauzak sortu nahi dituzten pertsonak** sartzen dira talde honetan. Atal honek **gauzak sortzeko aholkuak** zein gidak eskainiko ditu.

- **Online Enpresa bat sortu** --> Aholkularitza pertsonalizatua, bideoekin enpresak sortzeko laguntzak eta urratsak, kudeaketa eta marketing gidak...
- **Blog bat sortu**--> Blogger famatuekin harremanetan jartzeko aukera (**premium**), eta bideo eta gida desberdinen bitartez.
- **Youtube kanal bat sortu**--> Youtuberrekin harremanetan jartzeko aukera (premium), bideo eta gida desberdinen bitartez aholkuak eman.

Youtuben ez daude kalitatezko bideorik eta argi eta garbi urratsez urrats erosketak nola egiten diren, edo bizuma nola erabiltzen diren tutorial errazik...

LABURBILDUZ...

Internet ezagutzen ez duten pertsonak eta ikasi nahi dutenak izango dira gure bezeroak eta argi eta erraz erakutsi behar zaie. Izan ere, orain Interneten dauden bideo eta gidak oso konplikatuak dira eta pertsona guztietan pentsatu behar da. Horretarako gaude gu: pertsona guztiak kontuan hartzeko eta laguntzeko.

ZERK BEREIZTEN GAITU ETA ZERGATIK EGONGO DA BEZEROA GURI ORDAINTEKO PREST?

Ez dago guk eskaintzen ditugun baliabideak eskaintzen dituen aplikaziorik. Gainera, gure aplikazioa deskargatzea guztiz **dohainik** izango da eta pertsona guztiei zuzendua.

Gure aplikazioak abantaila ugari izango ditu, gure bezeroak erakarri egingo dituztenak eta gure aplikazioa aukeratuko dutenak beste batzuen aurrean.

Hauek dira gure ezaugarriak:

1. **AZKARRA/ ABIADURA HANDIKOA**--> gure aplikazioak era azkar batean funtzionatuko du, erabiltzaileen gailuetan deskargatuta egongo baita.
2. **ERRAZA**--> Gure aplikazioaren erabilera oso erraza izango da. Zaharrenetik, gazteenera. Adin guztietarako sortutako aplikazioa sortu dugu. Ondo argituta egongo da guztia eta zalantzaren bat egotekotan gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, bai Gmail bitartez bai eta Whatsapparen (chat) bidez ere.
3. **BEZEROEN FIDELIZAZIOA**--> Gure aplikazioa aplikazioen zerrendan egongo da, gure bezeroen telefonoaren barruan. Horrela, haien mugikorraren menua irekitzen duten bakoitzean, gure marka nabarmenduko da, eta egingarriagoa izango da bertan behin eta berriz sartzeari; horrela, gure enpresarekiko lotura indartuko da eta erosteko zuzeneko kanal gisa erabili ahal izango da.

4. **JAKINARAZPENAK IRISTEKO AUKERA** --> askotan publizitatea egunero bidaltzen dute eta astuna bihurtzen da. Gure enpresak jakinarazpenak bidaltzea edo ez aukera ematen du eta gainera, modu erraz batean kentzeko aukera.
5. **EUSKARAZ** izango da--> euskaraz informazio iturri eta euskarri gutxi daudenez, oso egokia iruditu zitzaigun gure aplikazioa euskaraz izatea. Gainera, euskara bultzatuko dugu eta euskaraz dakien edonork edukiko du aplikazioan ibiltzeko eta euskaraz ikasteko aukera.
- Gure proposamenaren balorea **kuantitatiboa** zein **kualitatiboa** da, baina garrantzi handiagoa emango diogu balio kualitatiboari, izan ere, gure aplikazioan nabarmenduko dena **diseinua** (erakargarria) izango delako.
 - Balore kualitatiboa, bezeroak produktu edo zerbitzu jakin baten inguruan duen ikuspegiarekin dago lotuta. Kasu horretan, **diseinua edota bezeroaren esperientzia** bezalako faktoreak hartzen dira kontutan gure produktua erabiltzeko orduan.

